

**ANEXO I**  
**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA**  
**EGITEKO TXANTILOIA**  
**ANEXO I**  
**PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA**  
**ANUAL DE ÁREA O MATERIA**

**Urteko/ikasturteko programaziodidaktikoa**  
**Programación didáctica anual/de curso**

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	IKASBIDEA	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	BATXILERGOA	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	2
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	FILOSOFIAREN HISTORIA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>	FILOSOFIA		
<b>diziplinabarruko oinarriko konpetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<b>KONPETENTZIA SOZIAL ETA ZIBIKOA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Konpetentzia giltzarriak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia</li> <li>○ Zientziarako konpetentzia</li> </ul> </li> </ul>		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	MAITE FERNANDEZ LANDALUCE	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2021-2022

**ZE HAR-KONPETENTZIAK:**

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
- Elkarbizitzarako konpetentzia
- Izaten ikasteko konpetentzia

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
1. Jarrera kritiko arrazionala lantzea, eta horretan, teoria eta korrante filosofikoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak erkatzea, eta korrante horiek beren koordinatu historikoekin eta paradigma kulturalarekin lotzea, norberaren ikuspuntutik	1. Filosofiaren jatorria antzinako Greziako testuinguru historikoarekin lotzea, eta ondo aztertzea iraultza antropologikoaren bilakaera.  2. Kristau-pentsamenduaren jatorria

<p>gizartefenomenoak interpretatzeko eta balioesteko (gaur egungo mundukoak, batik bat).</p> <p>2. Ikasgaien lantzen diren egileen pentsamendua ondo esplikatzea, eta horretan, diskurtso koherenteak josten jakitea, ideia nagusiak testuinguruan emanik, eredu horri jarraituz nork bere gogoetak, ideiak eta proposamenak antolatzeke.</p> <p>3. Testuetan lantzen diren auzi filosofikoak identifikatzea, eta auziok kritikoki aztertzea, norberaren ikuspuntuak argudioak eta arrazoiak emanaz defendatzeko.</p> <p>4. Besteen argudioak, proposamen filosofikoak, iritziak eta sinesmenak onartzea, eta horretan, elkarrizketa arrazionala eta ideien adierazpen librea aldezte, denen iritziekiko eta, aldi berean, Euskal Herriko aniztasun politiko, ideologiko eta kulturalarekiko errespetua lantzeko.</p> <p>5. Filosofiaren berariazko baliabideetan oinarrituta, eguneroko gertaerei ikuspegi kritikoerreflexibo batetik aurre egiteko baliabide intelektual eta epistemologikoak eskuratzea.</p> <p>6. Historiaren joanean egindako proposamen eta interpretazio filosofikoen bidez, arrazoimenak giza ekintza indibidual nahiz kolektiboa arautzeko duen ahalmena aintzat hartzea, horrek norberaren portaera irizpide arrazional zibikoekin</p>	<p>esplikatzea, eta horretan, jakitea kristautasunak nola egin zuen bat filosofiarekin eta zer pentsamendu-korronte izan ziren nagusi Zientzia Modernoa sortu bitartean.</p> <p>3. Errenazimentuan Mendebaldeko filosofiak egindako iraultzaz gogoeta egitea eta ulertzea iraultza horrek ekarri zuela Modernitatea.</p> <p>4. Aro Modernoa sorrarazi zuten indarrak identifikatzea, eta horretan, indar horiek beren aurrekariekin lotzea eta arrazionalismoak errealitatea kontzeptualizatzeko duen modua esplikatzea.</p> <p>5. Ilustrazioaren ekarpen historiko eta filosofikoak aztertzea eta balioestea; demokraziari eta berdintasunaren eta eskubide indibidualen aldeko borrokari egindakoak, batik bat.</p> <p>6. Ohartzea Kanten filosofia garai hartako filosofia-korronte nagusiei (arrazionalismoa, enpirismoa, Ilustrazioa, zientzia fisiko-matematika) emandako erantzuna izan zela, eta jakitea zer-nolako eragina izan zuen Kanten filosofiak Aro Modernoaren kosmobisioan.</p> <p>7. Marxismoa iraultza helburu duen filosofia praktikotzat hartzea, eta jakitea joera horrek, langile mugimenduaren borroka dela tarteko, zer-nolako eragina izan duen.</p> <p>8. Nietzschek Mendebaldeko kulturari (arrazionalismoari eta idealismoari, batik bat) egindako kritikaz gogoeta egitea.</p> <p>9. Ortega y Gasseten arraziobitalismoa aintzat hartzea, eta ohartzea horren bidez Ortegak bere garaiko filosofian nagusi ziren bi korronteak uztartu nahi izan zituela, Espainiako gizarteari proposamen politiko-sozial bat egiteko.</p> <p>10. Frankfurteko Eskolak egindako kritikaz gogoeta egitea, eta jakitea zer bilakaera izan duen Habermasek arrazoimen dialogikoaren bidez gizartea berregituratze aldera egindako proposamenak eta arrazoimen</p>
--	--

	<p>instrumentalaren bere interpretazioak.</p> <p>11. Pentsamendu posmodernoaren tesi nagusiak eta korrante horrek globalizazioaren testuinguru historikoan modernitateari egindako kritikak balioestea.</p>
--	---

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitatedidaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleokaedobestemoduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

### **1.UNITATEA: Platon**

- Testuinguru historikoa
- Testuinguru filosofikoa: Sokrates eta sofistak
- Dualismo ontologikoa: Ideien teoria
- Dualismo epistemologikoa: Doxa eta episteme
- Ongiaren kontzeptua
- Dualismo antropologikoa: arima eta gorputza. Arimaren teoria
- Bertuteak eta hiri ideala
- Aristoteles: hilemorfismoa eta teoria politikoa

### **2. UNITATEA: Agustin Hiponakoa**

- Testuinguru historikoa
- Fedea eta arrazoimena: ezagutzeko sinetsi.
- Zoriontasuna eta Jainkoa edukitzea.
- Jainkoaren existentzia eta ideia eredugarriak.
- Askatasuna eta gaitzaren arazoa.
- Historiaren Filosofia: lurreko hiria eta Jainkoaren hiria.
- Platonen filosofiaren eragina Agustingenan
- Tomas Akinokoa: Fedea eta arrazoimena. Jainkoaren existentzia: bost ibilbideak.

### **3. UNITATEA: Kant**

- Testuinguru historikoa
- Ilustrazioaren ezaugarri nagusiak.
- Sapere aude.
- Arrazoimenaren erabilera publikoa eta erabilera pribatua.
- Autonomia morala. Caesar non est supra gramaticos.
- Arrazionalismo eta enpirismoa Kant-engan.
- Kant-en kritizismoa: Zer ezagut dezaket? Zer egin behar dut? Zer itxaron dezaket?
- BERPIZKUNDEA ETA ZIENTZIA-IRAULTZA. Ezaugarri orokorrak: gizartearen eraldaketa, antropozentrisismoa eta zientziaraultza.
- Descartes: Razionalismoaren ezaugarri orokorrak.
- Enpirismoren ezaugarri nagusiak

#### 4. UNITATEA: Marx

- XIX eta XX. MENDEETAKO FILOSOFIA.
- Datu biografikoak eta testuinguru historikoa.
- XX. mendeko pentsamoldearen oinarriak: Marx, Nietzsche, Freud, Darwin.
- Erlijio-alienazioa.
- Ekonomia-alienazioa. –
- Materialismo historikoa: egitura ekonomikoa eta superegitura.
- Materialismo historikoa: iraultza.
- Gizarte komunista.
- Marxismoren eragina ondorengo munduan.
- NIETZSCHE: Kritika kristautasunari

#### 4. UNITATEA: Hannah Arendt

- Datu biografikoak eta testuinguru historikoa.
- Filosofia-inguramena: arrazoi ilustratuaren krisialdia eta XX. mendeko totalitarismak.
- Filosofia existenzialisten ideia nagusiak.
- Totalitarismoaren jatorria: gaitz absolutua.
- Giza bizitzaren baldintzatzaileak: landu, fabrikatu, ekin.
- Vita activaren esparruak: pribatua, publikoa eta soziala.
- Eichmann Jerusalem eta gaizkiaren banalitatea.
- Simone de Beauvoir:
  - Filosofia existenzialisten ideia nagusiak.
  - Zer da emakume izatea? "Emakumearen" kategoriaren problematizazioa.
  - Ideia feministen garapena Ilustraziotik XXI. mendera. Simone de Beauvoirren lanaren ekarpen nagusiak.

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jardueramotak, baliabide didaktikoak, ikasleentaldekatzeak, espazioen eta denborentolaketa, irakasleen eta ikasleenginkizuna... ikuspegi inklusibobatetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Dialektikaren erabilpena izango da gure unitate didaktikoen oinarria; elkarrizketa, eztabaida, taldekako hausnarketa eta hausnarketa indibiduala bultzatuko direlarik. Partehartze metodologia honen bidez, mintzamen teknikak, entzute aktiboa, tolerantzia eta elkarrenganako begirunea bereganatu beharko dira.

Testu libururik erabiliko ez den arren, eduki teoriko guztiak eskema eta fotokopietan garatuta emango zaizkie eta ikus-entzunezko materialak ere erabiliko dira. Ikasleen azalpenak funtzezkoak izango dira idatzizko edukien osaketerako eta ulermenerako Azterketek USE frogaren formatoa jarraituko dute.

Disertazioaren lanketa berezia egingo da, bai eguneroko jarduera labur baten bitartez, bai aldizkako idatzizko disertazioen bidez.

Aldizka metakognizio-dinamikak eta taldekako lan eta aurkezpenak egin izango ditugu.

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizkoprobak, galdetegiak, banakako eta taldekolanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelakokoadernoak, portfolioak, kontratudidaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Ebaluazioa 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskinean adierazten diren lorpen adierazleen bidez neurtuko da. Aldi berean, lorpen adierazle hauek ikasleen jarreraren bitartez neurtuko dira, horretarako lan idatziak, ahozko azalpenak, taldekako lanak eta portaera kontutan hartuko direlarik.</p>	<p><b>Azterketak</b> %70</p> <p><b>Eguneroko lana</b> (klaseko lana, etxekolanak, disertazioak... %20</p> <p><b>Jarrera</b> (arreta, errespetua, hutsegiteak...) %10</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzekoneurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapenmetodologikoak, emaitzen analisia, plangintzadidaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN</b> [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Etengabeko ebaluazioa egitea proposatzen da, eta horretarako, jarduera guztiak gainditu beharko dira, hauetariko bat ez baldin bada gainditzen, berriro aurkeztu beharko delarik dagozkion zuzenketak eginez. Hala eta guztiz norbaitek ez baldin baditu jarduerak betetzen kurtsoan zehar, irakasgaia gainditzeko aukera emango zaio bakarkako lan bat edo azterketa baten bidez.</p>	

**OHARRAK / OBSERVACIONES**

Programazio honen helburua kurtsoan zehar orientabide bat izatearena da. Hau dela eta, kurtsoan zehar agertu daitezkeen beharrezko arabera, unitateen ordena, sakontasuna edo beste arlo batzuk aldatu ahal izango dira.